



Getxo
bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA

Pertsona nagusientzat hiri atsegina lortzea da GETXO LAGUNKOIA proiektuaren helburua

Pertsona nagusientzat udalerrria hiri atsegin bihurtzea da GETXO LAGUNKOIA proiektuaren helburua, Horixe prentsaurrekoan aurkeztu dute gaur Imanol Landa Alkateak eta Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, eta abian jarriko da prozesu parte hartzaile batekin. Horrek lagunduko du pertsona nagusientzat lagunkoia izango den hiria diseinatzeko ideiak zehaztera.

Aurrekariak

Proiektuak bere lehenengo urratsak pasa den ekainean eman zituen, Getxoko Udalak Nagusiekin Atseginak diren Europako Hiriei eta Komunitateei buruzko Dublineko Adierazpenarekin bat egitea onartu zuenean. Adierazpen hori Munduko Osasun Erakundearen proiektua den Nagusientzako Hiri Atseginen Munduko Sarearen irizpideekin eta ekintzekin bat dator. Ondoren, Getxok bat egin zuen Eusko Jaurlaritzaren EUSKADI LAGUNKOIA ekimenarekin, zahartzen ari diren pertsonentzat bizitzeko gune atseginak sustatzeko mugimendua bideratzeko herritarren, eta alor publikoaren eta pribatuaren partaidetza sustatzen duena. *“Ondorioz, Euskal Autonomi Erkidegoan adin guztietako pertsonentzako hiriak eraikitze lan egiten jarri diren ia 40 udalerrietako bat gara. Helburu hau Legealdi Planaren 47 ekintza adierazgarrien artean dago zehaztuta, eta udala Zahartze Aktiboari lotuta aurrera eramaten ari den strategiaren barruan kokatzen da, zerbitzuei, egiturei eta inguruei dagokienez, Getxo egokia izan baitaiteke horretarako bere neurriagatik eta beren biztanleen piramidearen ezaugarriengatik”*, nabarmendu du Imanol Landa Alkateak.

Une honetan, Getxok 80.000 bat biztanle ditu, eta horietatik %31 60 urtetik gorakoak dira (14.094 emakume eta 10.413 gizon). Orain arte abian jarritako jardueren eta zerbitzuen artean daude Eusko Jaurlaritzaren *Mugiment* ekimenean parte hartzea, ibiltzeko hitzorduak, erorketak prebenitzeko tailerrak eta smartphonen erabilerari buruzko saioak antolatzea, eta pertsona nagusientzako ibilbideen eta baliabideen foiletua kaleratzea.

Hiria eraikitze proiektua

GETXO LAGUNKOIA hiria eraikitze proiektua da, udal zeharkako ikuspegia behar duena. Alkateak proiektua jendaurrean aurkeztuko du datorren otsailaren 17an, ostiralean, 11:00etan, Fadura kiroldegiko batzar aretoan. *“Beraz, proiektu biziari sartzeko ari gara, amierarik gabekoan beti hobetzeko aukerak izango dituen, guztiontzako hiri lagunkoiaren aldekoa. Izan ere, pertsona nagusientzat lagunkoia den hiria gune integratzailea eta irisgarria baita, zahartze aktiboa sustatzen duena. Ezin dugu ahaztu pertsona nagusientzat lagunkoia den hiria herritar guztiontzako hiri hobetua dela”*, gehitu du Alkateak.



Getxo

bizi ezazu

Prozesua

Lehenengoz udalerriko egungo egoerari buruzko azterketa-diagnostikoa egingo da, hau da, nola gauden maila kualitatiboan eta kuantitatiboan ezagutzeko. Horretarako prozesu parte hartzailea abian jarriko da, pertsona nagusien iritzia eta emakidak entzuteko, udalerrian topatzen dituzten sendotasunak eta ahultasunak zehaztuko baitituzte. Ehun bat lagunek hartuko dute parte, zortzi taldetan banatuta, adin, sexu, dibertsitate funtzional eta bizitoki desberdinak kontuan hartuta. Bederatzigarren taldea zaintzailek, zerbitzuen entitate hornitzailek eta GKEk osatuko dute. Horiek (eragile taldea osatuko dutenak) zortzi ikerketa-ardatzen inguruko ikuspegia agertuko dute (garraioa, etxebizitza, ehun soziala, errespetua eta inklusioa, herri partaidetza, komunikazioa eta informazioa, osasun eta gizarte zerbitzuak, eta kanpoko guneak eta eraikuntzak). Gai horiek hiru eremutan sailkatuko dira, hau da, ingurune fisikoa, inguru sozio-sanitarioa eta partaidetzako ingurua. Horien zeharka Informazioa eta Komunikazioa eremua ere landuko da. *"Nahi duten pertsona nagusi guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera, gizarteko alor desberdinetako getxotarren ezagutza eta eskarmentua eduki nahi dugulako (udalerriko historiari lotutako pertsonak, elkarteak, enpresa- eta gizarte- eragileak, bizilagunak...)"*, nabarmendu du Elena Coria zinegotziak.

Azterketa horretatik aterako diren ondorioak martxoaren amaieran aurkeztuko dira, eta hurrengo fasea hasiko da "I. Lagunkoitasun Plana-Getxo Lagunkoia" egiten, helburuak eta jokatzeko ildoak bilduko dituenak eta baita ekimenetarako proposamenak ere. Otsailaren 17tik aurrera webgunea izango da eta horren bidez prozesuaren berri eta partaidetza moduak ezagutu ahal izango dira. *"GETXO LAGUNKOIA pertsona nagusientzako herri atsegina lortzeko urrats garrantzitsua delakoan gaude, eta ondorioz, udalerrian bizi garen guztiontzat ere, udalerrian denok pertsona gisa eta duintasunez garatu ahal izateko"*, amaitu du Elena Coria zinegotziak.

(*) Argazkiak eta soinu korteak eskuratzeko:

<http://www.getxo.eus/prensa>.

Pasa-hitza: fotoscortes

Prentsa Bulegoa: 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis. Atentamente.